

BIZKAITARRAK: GIZANDIAK ALA ASTOAK?

Aurtengo orrillaren bostgarren egunean idaz-lan gogoangarri bat irakurri dot DEIA'n Bandrés eta Unanue'tar Luis'ek idatzia. Benetan irakurgarria da. Lenengo laburpen bat egingo dot, euskerara itzuliz, eta gero eritxi batzuk agertuko dodaz:

– Bernardo Ataxa'k esana da Bizkaitar izena leentxuago izeka-antzekoa zala: traketsa, zarratua, laburra, ezibakoa, guztiz ez-jakiña. Lope de Vega'ren aldietan alboratuen artean ezarten ziralda bizkaiatarrak eta "astoa" izena ezarten jakela.

– Oraintsuago Gipuzkoa'ko Aldundiak Liburu bat ber-argitaratu dau. Julio Caro Baroja'rena da eta "Garibay'ren bidez euskalduna eta edestia" gogoratzen gogoratzen dauz. II Felipe'ren etxe-edeslari izan zan Garibay eta Zamalloa'tar Esteban'ek (1553-1599) iru gai argitaratzen dauz: euskaldunak, edestia ta bizitz-edestia. Or agertzen da XVI gizaldian ez ziralda maitaluak euskaldunak. Garibay izatea, bizkaiatarra edo euskalduna izatea zan eta Lope de Vega'k bere Dorotea'n au diño: Garibai izatea, bizkaiatarra izatea da, ez jakiña izatea.

– Baiña Garibai'k berak beti aitatu dauz itzaltasun aundiaz Gaztela eta España'ko beste lurraldeak. Orre-lan idazle euskaldun guztiak baiña ez alderantziz.

– Gaur toki orreitarra joaten garanean, euren izkuntza ulertzea be ez da erreza izaten, baiña seku-

la ez dogu iraintzen. Euskaldunak agertzen garanean, beste izkuntza bat geurearen gaiñera dakigunak, curen erderaz iraindu egiten gaitue. Guk or ikusten dogu areik antxiñako jokabide okerrak barruan daroezela, geneetan. Eta barruan bakarrik ba'litz gaitzerdi.

– Labur-labur esateko izkuntza bi ondo dakizana astoa ei da eta bat bakarra dakiana jakituna. Baiña izkuntza bakar ori inperioarena da...!

Pensabide polit eta eder oneik beste ikuspegi bat ba badauko: Bizkaitarrak (edo euskaldunak) mundu guztian izan gara onartuak, berbakoak garalakako batez be, eta orain 50-bat urte España'ra joaten giñe-nean euskalduna garala esateaz beste barik, Ah! esan eta isildu egiten ziran. Nik ez neban somatzen astotzat artua izaterik. Orain be barru-barruan ori dago, baiña gaiñean agertzen dan izukeriak dana estaltzen dau.

Izu-zaleak oso gitxi dira gure artean, baiña barru-barruan zerbait bear endakerizkoa dan irain ori guri ezarteko. Gaur ez gara guztiok astoak, gaur guztiok ei gara izuzaleak. Ez da obea!

OLAZAR'tar Martin'ek

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (3.000 pezeta) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk'ra eta ordaindu 18,03 € (3.000 pezeta). Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!